

BATZORDE EZ-IRAUNKOR PROPOSAMENA

IBILGAILUEN HIRIGUNEKO KONGESTIOA EKIDITEKO DISUASIO EREDUA DELA ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 148. artikulua oinarri, honako BATZORDE EZ-IRAUNKORRERAKO PROPOSAMEN hau aurkezten du, ibilgailuen hiriguneko kongestioa ekiditeko disuasio eredu dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabeteetan hizketagai izan ditugu Udalean 2016. urteko udaran izandako buxadurak eta aurtengo udara honetan izan litezkeenak. Udal-gobernuak aurtengo udarako neurriak azaldu ditu, gehienak epe motzera begira: trafiko-datuak (bizikleta, aparkalekuak, semaforoak...) OpenData formatura pasa eta Udalaren sisteman integratzea, karga-deskarga ordutegiak egokitzea, parking-en informazio-sistemak hobetzea, 2016ko parking disuasorioak sustatzen jarraitzea... baina, adierazgarria izan da Udal-gobernuak berriki adierazi zuela azken bi udaratan martxan jarritako disuasio-neurriek ez dutela disuaditzen eta ez direla nahikoa izan.

Bide berean, kezkarria da, turismoaren bilakaeragatik, % 10eko hazkuntza urtez urte, eta bereziki, egun bateko bisitarien hazkuntzagatik, 2 milioi eguneko bisitari 2016an, ibilgailuek eragindako hiriguneko kongestioa okerrerantz joan daitekeela. Izan ere, 2016. urteko datuen arabera, eguneko bisitan datozenen % 61ak ibilgailu pribatuan egiten du.

Hori dela eta, eta ikusita Udal Gobernuak onartu duela hartzen ari diren neurriak nahikoa ez direla, aztertu eta ebaluatu beharko litzateke jarri diren udal baliabideak (giza baliabideak, teknikoak, ekonomikoak...) nahikoa edo-eta egokiak ote diren. Zentzu horretan beharrezkoa iruditzen zaigu batzorde hau erabiltzea neurri hauek ebaluatzeko. Horrez gain, ulertuta udarako buxadurak arazo estruktural bilakatzen ari direla, interesgarria deritzogu, politikari eta teknikoen artean, beste hirietan dituzten esperientzia eta ereduak aztertzea, Donostiarentzat lagungarri izan daitezkeelakoan. Adibidez, Nantes, Copenhage, Oslo, Friburgo eta abar eredu on batzuk izan daitezkeelarik.

Azkeneko udetan hartutako behin behineko neurriez haratago, hiri honek epe luzera begirako hausnarketa bat abiarazi behar duela uste dugu. Horregatik, urtean urteko neurri aringarriez gain (zalantza gabe ezinbestekoak baina ez nahikoak), epe ertain eta luzeko ikusmirarekin aztertu eta behar diren erabaki estrategikoak hartzeko espazio bat beharrezkoa du Udalak. Donostiak etorkizunean dituen erronka hauei errotik heltzeko, bai bertan bizi garenon aldetik, baita kanpotik datozen bisitarien aldetik. Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

BATZORDE EZ-IRAUNKORRERAKO PROPOSAMENA

1- Xedea: Batzorde Ez Iraunkorra eratzea, ondorengo helburuekin:

1.1.- Orain arte eta bereziki 2017ko udara honetan, Udalak disuasio politikaren inguruan hartutako uneko neurriak ebaluatu eta berriak proposatzea.

1.2.- Epe ertain eta luzera begira, hirigunea ibilgailu pribatuekin ez kongestionatzeko beharrezko parking-eskaintza eta garraio publiko bidezko irisgarritasun eredu definitzea.

1.3. - Beste hirietako disuasio politika ereduak aztertzea

2- Osaketa: udal talde bakoitzeko kide bana, bozka ponderatuarekin. Gonbidatuak izan daitezkeelarik mugikortasun adituak

3- Iraupena: urtebete.

4- Bileren maiztasuna: hilean behin, gutxienez, 2017ko irailtik hasita.

Donostian, 2017ko uztailaren 4a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga

EH Bildu udal taldeko bozeramaile